

# Leonard Cohenen abestien integrazioa Espainiako kulturan Xabier Leteren itzulpenen bidez

---

ALEJANDRO ROS-ABAURREA  
(UPV/EHU)

## Leonard Cohen Espainiako kultura

Leonard Cohenen eta Espainiako kulturaren arteko lotura artista kanadarra oraindik 15 urteko gaztea zenean eratu zen. Kasualitatez, Montrealgo bigarren eskuko liburu-denda batean liburuak begiratzen ari zela, Federico García Lorcaren antologia poetiko baten itzulpena iritsi zitzaion eskuetara. «Granadako literatoaren bertsoak irakurtzen dituenean zurbildu egiten da mutikoa: *Por el arco de Elvira / quiero ver pasar / para saber tu nombre / y ponme a llorar*», kontatzen du Tébarrek (2010: 1. paragrafoa). Hala ezagutu zuen Lorcaren lana, zeinak bere nortasun artistikoa deskubritzea ahalbidetu baitzion. Hain zuzen ere, hainbestekoa zen poeta granadarrarekiko sentitzen zuen mirespena, non lehen alabari Lorca Cohen izena jartzea erabaki baitzuen. «Zer esan dezaket nire bizitzako une batean nire izaera zein pentsaera erotik aldatu zituen gizonari buruz?» (Romero, 1974: 19), aitortu zuen zenbait urteren ostean Constantino Romerorekin *Vibraciones* aldizkarirako izandako elkarrizketa batean, Espainian egin zuen lehen emanaldiaren harira. Espainiako kultura Cohenen nortasun artistikoaren sorburu eta genesi izan zen; izan ere, bere ahotsa Lorcarengan aurkitzeaz gain, gitarra espainiarrari eta flamenkoari esker topatu zuen bere lehen kantuak sortzeko mantenugai musikala (Manzano, 2012: 24).

Sarritan kontatu du xeheki Cohenek nola ezagutu zuen bere lehen gitarra-irakasle –eta bakarra– izan zen espainiarra. 1960ko hamarkadaren hasieran, Leonard, gazterik, amarekin Montrealen partekatzen zuen etxebizitzan zegoen. Eraikinaren atzealdeak muga egiten zuen

tenis-pistaz hornituriko Murray Hill parkearekin, eta gazte ugari joaten ziren bertara. Parke hartan paseatzen zebilen batean, haurtzaroko oroitzapen eta bizipenak ohoratzen ari zela, Cohenek mutil bat entzun zuen gitarra-akorde batzuk zarrastatzen, gazte batzuk txundituta aurrean zituelarik. Hemeretzi urteko ijito zirats hark «Montrealgo espainiarra» ezizena jaso zuen (Manzano, 2012: 90). «Haren jotzeko moduak bazuen liluratu ninduen zerbeit. Nik berak bezala jo nahi nuen, baina banekien ez nintzela inoiz gai izango» (Cohen, 2011: 15. paragrafoa), onartu zuen 2011n, Letretako Asturiasko Printzea saria jaso zuenean. Entzule haiekin bat egin, eta, isiltasun-maila egokia lortu bezain laster, gitarra beraren erara jotzen irakasteko erregutu zion. Prezioa finkatu, eta biharamunean elkartzekotan geratu ziren, Cohenen amaren etxean, zeina parkeko leku hartatik ikus baitzitekeen.

Cohenek jaso zituen lehen hiru eskolei esker, sei akorde tremoloduneko progresioarekin ohitu zen, hots, flamenko-abesti askoren oinarri harmonikoarekin. Baina gitarra-jotzailea ez zen laugarren eskolara azaldu. Harrituta, Cohenek telefonoz deitu zuen espainiarra bizi zen Bowdy House ostatura, Montrealen, eta jakinarazi zioten musikariak bere buruaz beste egin zuela. «Ez dakit arazo pertsonalak edota ikaslearen aurrerapen eskasa arrazoi, baina, hala balitz, ez dut uste ni hain ikasle kaskarra nintzenik!», esan zuen txantxetan Cohenek berak geroago (Manzano, 2012: 90).

Montrealgo musikari eta poetaren sormena piztea sakonki dago erlazionatuta Espainiako kulturarekin. Era berean, joan den mendeko 60ko hamarkadaren hasieratik, haren musika-obraren eragina gailendu da oro har Espainiako kultura-sisteman eta, bereziki, itzulitako kultura; eta, horri esker, hamarkadetan zehar iraun duen noranzko biko sormen-fluxua sortu da.

Leonard Cohenen lana Espainiako kulturaren integratu eta iragazkortzearen adibide nabarmentak azken hamarkadetan artistari antolatua zaizkion omenaldiak dira, non haren abestien itzulpen zein bertsoiak izan diren nagusi. Lehenbizikoa 2005eko maiatzean antolatu zen, *Confesiones de Margot* aldizkari aragoiarrak artistari omenaldi diskografikoa egitea erabaki baitzuen 13. fanzinean. Coheni buruzko elkarrizketa eta artikuluez gain, omenaldi-disko bat ere argitaratu zuen aldizkariak, non hainbat artista nazionalak musikagilearen abesti ezagunenetako batzuen bertsoiak –hainetako asko espainierara itzuliak– sortu zituzten, hala nola Picoreren «El futuro» bertsoia, Los Chulisen «En el alambre» edo Nixonen «Suzanne» («The Future», «Bird on the Wire» eta «Suzanne» abestien bertsoiak, hurrenez hurren).

Urtebete geroago, 2006ko udan, Alberto Manzanok (poeta eta Leonard Cohenen lagun eta itzulitzaile ofiziala<sup>1</sup>) lau kontzertu<sup>2</sup> antolatu zituen, Espainian, eta, beste behin, hainbat artistak Cohenen abestien bertsoiak egin zituzten haren omenez (Manzano, 2010). Aipatzekoak dira

1. 1980. urtean lehen aldiz topatu zirenean, Cohenek eta Manzanok bide eman zioten 2016an poeta kanadarra hil arte iraun zuen adiskidetasunari. Denboraren poderioz, Cohenek berak erabaki zuen Manzanok soilik izango zuela bere obra espainierara itzultzeko «eskubide zein bikaintasun-bermea» (Manzano, Merino-Álvarez eta Ros-Abaurrea, 2019).
2. Sant Feliu de Guixols, Jimena de la Frontera, Lorca eta Santa Cruz de Tenerife (Manzano, 2010).

Luz Casal eta «Baila conmigo (hasta el final del amor)», Kiko Veneno eta «Pájaro en el cable», Pasi3n Vega eta «No hay cura para el amor», Mayte Mart3n eta «Oye, esta no es manera de decir adi3s», Son de la Frontera eta «Yo quise dejarte», eta Javier Colis eta «Esta noche estar3 bien» artista-abesti kolaborazioak. Kontzertu horiek hainbesteko interesa piztu zuten, ezen beste hiru kontzertu antolatu baitziren, Els Hostalets de Baleny3n, Sant Cugat del Vall3sen eta Lleidan, 2007ko urtarrilaren 12an, 13an eta 14an (Manzano, 2010). Azkenik, proiektua CD eta DVD formatuan jaso zen, *Acordes con Leonard Cohen/According to Leonard Cohen* (Manzano, McCormick eta Mas, 2007) izenburupean, lau hizkuntzatan interpretatutako abestiekin (katalana, espainiera, euskara eta ingelesa), bai artista nazionalenak, bai nazioarteko artistenak.

Hamar urte geroago, *Flamencohen* musika-tributua antolatu zen, non berriz ere letren itzulpena kulturen oinarri eta lotura izan zen. Alberto Manzanok ekoitzi zuen, SGAE Fundazioarekin batera, eta, bertan, Mayte Mart3n, Argentina, Duquende, Son de la Frontera, Roc3o Segura, Sandra Carrasco eta Silvia P3rez Cruz artistek omenaldia egin zioten su sakratuaren kantariari, cante jondoko mestizajerik garbiena Leonard Cohenen ukitu poetikoarekin nahastuz (Universidad de Oviedo, 2020: 2. paragrafoa). Ikuskizuna 2017ko uztailean estreinatu zen, Huescan ospatzen den Pirineos Sur jaialdiaren programazioaren barruan, eta zazpi data gehitu ziren: M3laga, Sevilla, Salamanca, Madril (bi emanaldi), Algeciras eta, azkenik, Chiclana de la Frontera (Oviedoko Unibertsitatea, 2020: 4. paragrafoa).

Azkenik, Leonard Cohenen musika-obra berrienari egindako gorazarreen adibide da *Canciones desde la azotea* (Ortiz P3rez de Ayala eta Mediod3a Mart3n, 2020) ekoizpena, Movistar+ ordainpeko plataforma espainiarrak 2020. urtearen amaieran kaleratu zuen lau kapituludun programa-dokumentala. Emanaldi orok garai guztietako musikari ospetsuenetako bat izan zuen ardatz, eta, bereziki, musikari eta konpositore horiek Espainiako kultura-sisteman izan duten eragina. Kapitulu bakoitzean, aditu nazionalak elkarrizketatzen dira, eta musikari nazionalak omendutako artistaren kantu entzutetsuenen bertsioak interpretatzen dituzte.

Lehenengo hiru kapituluak estreinatu ostean, 2020ko azaroaren 7an –haren heriotzaren laugarren urteurrenarekin batera–, programa-dokumental horren laugarren eta azken kapitulu eman zuten, Leonard Cohenen omenez. Oraingoan, Vega abeslari eta musikagilea arduratu zen musikariaren lau abesti enblematikoenei ahotsa jartzeaz; hala, «Suzanne» interpretatu zuen Christina Rosenvingerekin batera, «Hallelujah» M3burekin, «Take this Waltz» Marazurekin, eta «Chelsea Hotel» Xos3 Manuel Budiñorekin.

Leonard Cohenen lanak Espainiako kultura herrikoian izan zuen garrantzia dela eta, Letretako Asturiasko Printzea saria jaso zuen 2011n, «mundu osoko hiru belaunalditan eragina izan duen literatura-obrarenegatik, non sortutako iruditeria sentimentalean balio aldaezineko poesiak eta musikak bat egiten duten» (Asturiasko Printzesa Fundazioa, 2011). Onarpen-hitzaldian, Cohenek berak nabarmendu zuen Espainiako kulturak eragin sakona izan duela bere obran: «Nire lanean, nire obran topatu duzuen on guztiak hemen du jatorria. Nire kantetan zein poesian aurkitu duzuen guztia lur honek inspiratu du» (Cohen, 2011: 23. paragrafoa).

## Cohenen abestien katalogazioa

Leonard Cohenen musika-lana Espainiako herri-kulturaren integratzeko prozesuaren ikuspegi orokorra lortzeko xedez, *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)*<sup>3</sup> katalogoa osatu zen. Katalogoak espainierara, euskarara, galizierara eta katalanera itzultako abestiak biltzen ditu. Itzulpengintza-ikasketa deskriptiboen<sup>4</sup> eta corpus bidezko itzulpen-teoriaren zein metodologiaren oinarrietatik abiatuta, Cohenen abestien itzulpenen katalogo bateratua deskribatu eta aztertu zen. Bertan, sarrera bakoitza itzulpen bati dagokio, eta itzultakoaren hedapenari buruz hainbat komunikabidetan argitaratutako informazioa ere jasotzen da.

«Suzanne» (Lete, 2006)	
Jatorrizko titulua	Suzanne
Xede-titulua	Suzanne
Hedabidea	Testu musikatua
Jatorrizko hizkuntza	Ingelesa
Xede-hizkuntza	Euskara
Jatorrizko albuma	<i>Songs of Leonard Cohen</i>
Jatorrizko argitalpenaren data	1967
Itzulpenaren argitalpenaren data	2006
Xede-argitalpena	<i>Abestizak eta poema kantatuak</i>
Argitaletxea	Elkar
Edizio elebiduna	Ez
ISBN	9788497834346

**1. taula.** Erregistro-adibidea: Xabier Leteren «Suzanne» itzulpena  
*Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoan.

Katalogoa osatzen duten itzulpenak identifikatu eta hautatzeko, hainbat informazio-iturrirara jo zen, hala nola: theleonardcohenfiles.com –datu-baseak, haren musika- eta literatura-argitalpenei buruzko informazioa, bai eta *A thousand covers deep: Leonard Cohen covered by other artists* katalogoa ere (mundu osoko artistek Leonard Cohenen musika-errepertorioan oinarritutako abestien bertsioak biltzea helburu duen katalogo zabala) biltzen dituen web-

3. *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoak euskarri fisikoen bidez hedaturiko itzulpenak biltzen ditu soilik.


4. TRALIMA/ITZULIK (<https://addi.ehu.es/handle/10810/34436>) ikerketa-taldeak Espainiako itzulpenen historia berreraikitzean oinarritutako ikerketak egin ditu. XX. eta XXI. mendeetan ikus-entzunezko komunikabideetan zein inprimatutako lanetan zabalduetako kulturaren kartografia egiteko amankomuneko oinarri teorikoa (itzulpengintza-ko ikasketa deskriptiboak, hain zuzen ere) duen protokolo metodologikoari jarraitzen zaio (Toury, 2004). Itzulpen-katalogoen bilketatik abiatuta (genero, aro edo hizkuntza-konbinazioaren arabera), bildutako informazioa aztertzen da, eta, horri esker, informatizatutako corpusak lerrokatzeko eta tratatzeko tresnen bidez aztertzen diren testu-corpus esanguratsuak ezarri eta aukeratu daitezke (Merino-Álvarez, 2017).

orria— eta cohencentric.com webgunea. Liburu-formatuan argitaratutako abestietarako, honako iturri hauek baliatu ziren: Espainian argitaratutako liburuen datu-basea (ISBN), REBIUN eta CCBIP katalogoak, eta EIZIE elkartearen Nor da Nor bilatzailea.

Leonard Cohen\_ESP (1972-2019) katalogoaren analisisia

Ikerketa honek *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoaren bilduman du abiapuntua. Katalogo horretan, 522 sarrera biltzen dira, Leonard Cohenek sortu eta interpretatutako 156 abesti originalen ustezko itzulpenei buruzkoak, bai estudioko hamabost albumetan<sup>5</sup> jasotakoak, bai artistak zuzenean soilik interpretatutakoak.<sup>6</sup>

Jasotako datuak aztertuta, argiki hiru hedabide identifikatu ahal izan dira: testu musikatua, argitalpen inprimatuak eta emisioetako zein ikus-entzunezko produktuetako azpituak. 1. grafikoak erregistratutako sarrera kopurua jasotzen du, hedabidearen arabera.



### 1. grafikoa. Katalogoaren sarrera kopurua hedabidearen arabera.

Bildutako datuen arabera, argitalpen inprimatuak dira Cohenen abestien ustezko itzulpenak Espainiako kulturari zabaltzeko bitarteko erabiliena (sarrera guztien % 67,6); ondoren, testu musikatua (% 27,6), eta, azkenik, azpituak (% 4,8).


Era berean, katalogoaren analisiari esker, Cohenen musika-obraen itzulpenek Espainiako kulturari duten presentziaren mapa osa daiteke, xede-hizkuntzen<sup>7</sup> arabera.

5. *Songs of Leonard Cohen* (Cohen, 1967); *Songs from a Room* (Cohen, 1969); *Songs of Love and Hate* (Cohen, 1971); *New Skin for the Old Ceremony* (Cohen, 1974); *Death of a Ladies' Man* (Cohen, 1977); *Recent Songs* (Cohen, 1979); *Various Positions* (Cohen, 1984); *I'm Your Man* (Cohen, 1988); *The Future* (Cohen, 1992); *Ten New Songs* (Cohen, 2001); *Dear Heather* (Cohen, 2004); *Old Ideas* (Cohen, 2012); *Popular Problems* (Cohen, 2014); *You Want It Darker* (Cohen, 2016) eta *Thanks for the Dance* (Cohen, 2019).

6. Adibidez, «Priests», «Do I have to dance all night» edo «Storeroom».


7. Azpimarratzekoa da, *ustezko itzulpena* kontzeptuarekin lan egin dela kontuan hartuta, Espainiako artisten itzulpen musikatua potentzial guztiak barne hartzen dituela katalogoak, nahiz eta, azkenean, haietako batzuek jatorrizko letrak darabiltzaten. Testu musikatua horiek xede-testuen azterketan deskribatu edota alderatzen ez diren arren, garrantzitsua da gure musika-kulturari duten agerpena biltzea, Cohenek artista zein musikari espainiarrengan izan duen influentziaren berri ematen baitute.

2. grafikoak hizkuntza bakoitzeko sarrera kopurua islatzen du.




**2. grafikoa.** Katalogoko sarrera kopurua xede-hizkuntzaren arabera.


Espainiera da tradizio handieneko xede-hizkuntza; ondoren, katalana eta euskara; eta, azkenik, galiziera. Era berean, katalogoko hizkuntzen presentziari buruzko ikuspegi zehatzagoa lortzeko xedez, hiru hedabideetan oinarrituz ere egin daiteke hizkuntzen arabera (ikus 3., 4. eta 5. grafikoak).



**3. grafikoa.** Argitalpen inprimatuen xede-hizkuntza.



**4. grafikoa.** Testu musikatuen xede-hizkuntza.



**5. grafikoa.** Azpтитuluen xede-hizkuntza.

3., 4. eta 5. grafikoetan bildutako datuek berretsi egiten dute katalogoan zehar ikusten den joera orokorra; hau da, hiru hedabideetan espainiera dela itzulpen-hizkuntza ohikoena. Testu musikatua da hizkuntza guztietan sarrerak dituen hedabide bakarra; argitalpen inprimatuen eta azpтитuluen kasuan, berriz, espainieraz zein euskaraz eta espainieraz zein katalanez bakarrik sortu dira sarrerak, hurrenez hurren.

### Leonard Cohen\_ESP (1972-2019) katalogoko euskarazko itzulpenak


2. taulak *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoan erregistratutako euskarazko itzulpen guztiak jasotzen ditu:

Jatorrizko titulua	Xede-titulua	Xede-argitalpenaren urtea	Itzultzailea	Xede-argitalpena	Hedabidea
«The Stranger Song»	«The stranger song»	1980	Anonimoa	<i>Oh! Euzkadi 4</i>	Argitalpen inprimatua
«Hey, That's No Way to Say Goodbye»	«Adizu, hau ez da agur esateko era»	1985	Aitor Arana	<i>Hotsizki 1</i>	Argitalpen inprimatua
«Suzanne»	«Suzanne»	2006	Xabier Lete	<i>Abestizak eta poema kantatuak</i>	Argitalpen inprimatua
«Bird on the Wire»	«Bird on the wire (Txoriak kaiolan)»	2006	Xabier Lete	<i>Abestizak eta poema kantatuak</i>	Argitalpen inprimatua
«So Long, Marianne»	«So long, Marianne»	2007	Jabier Muguruza	<i>Acordes con Leonard Cohen</i>	Testu musikatua
«Hallelujah»	«Hallelujah»	2009	Irati Jimenez	<i>Nabarra 121</i>	Argitalpen inprimatua
«Tower of Song»	«Tower of song»	2009	Irati Jimenez	<i>Nabarra 121</i>	Argitalpen inprimatua
«Suzanne»	«Suzanne»	2011	Xabier Lete	<i>Senex 41</i>	Argitalpen inprimatua
«Bird on the Wire»	«Bird on the wire (Txoriak kaiolan)»	2011	Xabier Lete	<i>Senex 41</i>	Argitalpen inprimatua

2. taula. *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoko euskarazko itzulpenak.

Katalogoak euskarazko bederatzita itzulpen biltzen ditu 31 urteko epean: *Oh! Euzkadi* (anonimoa, 1980) aldizkariaren laugarren alean «The stranger song» argitaratu zenetik *Senex* aldiz-

kariaren 41. alean (Egia, 2011) «Suzanne» eta «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» argitaratu ziren arte. Itzulpenak bost itzultzailek egin dituzte (anonimoa, Aitor Arana, Irati Jimenez, Jaber Muguruza eta Xabier Lete), eta sei xede-argitalpenen bidez zabaldu dira (*Abestitzak eta poema kantatuak*, *Acordes con Leonard Cohen*, *Hotsizki*, *Oh! Euzkadi*, *Nabarra* eta *Senex*). Halaber, ondoriozta daiteke Cohenen musika-ekoizpenaren euskarazko itzulpenak bi hedabideren bidez gizarteratu direla xede-kulturan (ikus 6. grafikoa): argitalpen inprimatuak (% 88,9) eta testu musikatuak (% 11,1). Aitzitik, ezinezkoa suertatu da azpittitulu erako itzulpenik aurkitzea.



**6. grafikoa.** Cohenen euskarazko itzulpenak hedabidearen arabera.

Behin *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogotik aztertu nahi diren itzulpenak auke-ratuta, jatorrizko testuekin alderatu ondoren aurkitutako itzulpen-fenomenoak aztertu dira, ikuspegi deskribatzaile-konparatiboa oinarri. Itzulpen-fenomenoak mugatu eta sailkatzerakoan, Nidak (1964) proposatzen dituen hiru kategoria orokorrak hartu dira kontuan (*aldaketak*, *ezabapenak* eta *gehikuntzak*). Horrez gain, Molina eta Hurtado Albirren (2002) eta Pajares-Infanteren (2010) proposamenak kontsultatu ondoren, *baliokidetasun-eza* kategoria gehitzea erabaki da jatorrizko bertsiorearen eduki semantikoa islatzen ez duten itzulpenetarako. Orobat, hainbat azpikategoria zedarritu dira, azpiko itzulpen-teknikak zehatzago deskribatzeko xedez.

Artikulu honen luzera-mugaren kausaz, ezinezkoa izan da euskarazko bederlatzi itzulpenen azterketa deskribatzaile-konparatiboa txertatzea. Beraz, bi izan dira azterketa Xabier Leteren itzulpenetara mugatzearen arrazoi nagusiak. Lehenik eta behin, *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoan euskarazko itzulpen gehien erregistratu dituen itzultzailea da. Gainera, haren itzulpenak, argitalpen inprimatu gisa hedatu diren arren, testu musikatu gisa hedatutako itzulpenen ezaugarri bereizgarriak izateagatik nabarmentzen dira (adibidez, jatorrizko konposizioaren eritmoari edota silaba kopuruari eustea),<sup>8</sup> eta horrek interes bereziko aztergai bihurtzen ditu.

8. *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoa osatzen duten itzulpen guztien analisiari esker, frogatu ahal izan da argitalpen inprimatu gisa hedatutako itzulpenek jatorrizko kantaren zentzua lehenesten dutela; ondorioz, ez dute kontuan hartzen melodiaren eritmoa edota silaba kopurua.




## Xabier Lete Leonard Cohenen lanaren itzultzaile

Xabier Lete (1944-2010) euskal poeta eta kantautoreak *Ez dok Amairu* kolektiboko kide gisa hasi zuen bere ibilbide musikala (Martin-Etxebeste, 2020: 226). Era berean, oso gaztetatik hasi zen poesia lantzen: 24 urte besterik ez zuela argitaratu zuen bere lehen poema-liburua *Egunetik egunera orduen gurpilean* (Lete, 1968). 2006an, *Abestitzak eta poema kantatuak* kaleratu zuen, egilearen beraren hitzetan «Xabier Letek kantatu dituen eta kantatu dizkioten abestien hitzak, abestitzak eta kantatutako poema kantatuak» (Lete, 2006) biltzen dituen liburua. Lan horretan, Leonard Cohenen lanaren bi itzulpen jasotzen dira: «Suzanne» (Cohen, 1967) eta «Bird on the Wire» (Cohen, 1969). Horrez gain, aipatzekoa da bi abestien euskarazko itzulpenek bost urte geroago berriz ikusi zutela argia, *Senetz* aldizkariaren 41. alean, euskal kantari eta poetaren itzultzaile-lanaren inguruan diharduen artikulu batean (Egia, 2011).

### Xabier Leteren «Suzanne» abestiaren itzulpena

Lehenik eta behin, «Suzanne» kantaren itzulpenen azterketa deskribatzaile-komparatiboak islatzen du bi testuak berdinak direla. Halaber, itzulpen-fenomenoei dagokienez, aldaketa baliatu da gehien (% 52,3); gero, ezabapenak (% 43); ondoren, gehikuntzak (% 3,7), eta, azkenik, baliokidetasun-eza (% 1).

■ Gehikuntza ■ Aldaketa ■ Baliokidetasun-eza ■ Ezabapena



### 7. grafikoa. Xabier Leteren «Suzanne» abestiaren itzulpen-kategorien maiztasuna.

Erregistratutako itzulpen-fenomenoak ez datoz bat —ez kopuruari, ez izaerari dagokienez— argitalpen inprimatuetan biltzen diren itzulpenetakoekin; izan ere, argitalpen inprimatuetan jatorrizko zentzua ematea lehenestea da joera, eta normalean ez dira kontuan hartzen testu musikatuaren berezko ezaugarriak, hala nola erritmoa edota errima. 3. eta 4. tauletan, Leteren laneko itzulpen-fenomeno bereizgarrietako batzuk agertzen dira: aldaketak eta ezabapenak.

«Suzanne» <i>Songs of Leonard Cohen</i> (Cohen, 1967)	«Suzanne» <i>Abestitzak eta poema kantatuak</i> (Lete, 2006) <i>Xabier Lete, itzultzaile</i> (Egia, 2011)
(36) Now Suzanne takes your hand	(36) Eskutik hartuta Suzanne
(37) And she leads you to the river	(37) Orain gidatzaile duzu
(38) She's wearing rags and feathers	(38) Ibai aldera zarama
(39) From Salvation Army Counters	(39) Arlote jantzirik dago

**3. taula.** Xabier Leteren «Suzanne» abestiaren itzulpen-fenomenoak (I).

«Suzanne» kantaren itzulpenaren 36. bertsoan (Lete, 2006; Egia, 2011), «now» aditzondoa ezabatu da, eta hurrengo bertsoan txertatu. Era berean, aldaketa gramatikal bat ikus daiteke aditz-forman (indikativoko orainalditik partizipiora). 37. bertsoan, «now» aditzondoaren transferentzia interbertsala ikus daiteke, aurreko bertsoan agertzen baitzen aditzondoa. Gainera, transposizioa darabil Letek, aditz bat («lead») izen («gidatzaile») bihurtuz. Azkenik, «to the river» preposizio-osagarria kendu du, eta hurrengo bertsoan txertatu. 38. bertsoaren berezitasuna da, hain zuzen ere, aurreko bertsoan ezabatu den informazioaren transferentzia interbertsala, jatorrizko bertsoaren eduki semantikoa erabat ezabatu baita. Antzeko fenomeno bat gertatzen da 39. bertsoan, ingelesezko testuaren karga semantikoa ez baita islatzen euskarazko itzulpenetan. Hala ere, «wearing rags» terminoaren transferentzia interbertsala agertzen da, jatorriz aurreko bertsoari dagokiona. Itzulpen hori bariaziotzat har daiteke, «wearing rags» «arlote» bilakatzen baita.

Dirudenez, 36.-39. bertsoetako itzulpen-fenomenoek jatorrizko konposizioaren erritmoa berdintzeko nahiari erantzuten diote. Horrela, aldaketak eta ezabapenak erabiliz, bere itzulpenaren 37. zein 39. bertsoen eta jatorrizko bertsoen silaba kopuruak bat etortzea lortzen du Letek. Gainerako bi bertsoen kasuan (36.a eta 38.a), erritmoa jatorrizko testuarekin bat ez badator ere, aldaketak oso txikiak dira (silaba bat edo bi).

«Suzanne» <i>Songs of Leonard Cohen</i> (Cohen, 1967)	«Suzanne» <i>Abestitzak eta poema kantatuak</i> (Lete, 2006) <i>Xabier Lete, itzultzaile</i> (Egia, 2011)
(52) For she's touched your perfect body	(52) Gorputza ukitu baitu
(53) With her mind	(53) Izpirituz

**4. taula.** Xabier Leteren «Suzanne» abestiaren itzulpen fenomenoak (II).


Halaber, aipagarria da erregistratutako ezabapenen ehuneko handi bat murrizketa partziala itzulpen-fenomenoaren kategorian sartzen dela. 4. taulan jasotakoaren antzera, badirudi azpikategoria horretako fenomenoek, berriz ere, testu musikatuaren itzulpenari dagozkion silabaz-baketaren mugei erantzuten dietela. Ikus daitekeenez, jatorrizko 52. bertsoa, «For she's

touched your perfect body», «Gorputza ukitu baitu» itzuli da. «Your» edutezko adjektiboa eta «perfect» adjektibo kalifikatzailea ezabatzearen ondorioz, itzulitako bertsoak eta Cohenen jatorrizko bertsoak antzeko silaba kopurua dute (7 silaba itzulpenak eta 8 jatorrizko bertsoak); hori lortzea zailagoa izango zatekeen itzulpenak karga semantiko osoa mantendu izan balu. Antzeko fenomeno gertatzen da 53. bertsoaren itzulpenean; «her» edutezko adjektiboa ezabatuz, eta «mind» «izpiritu» bihurtuz, Letek jatorrizko testuak eta itzulpenak antzeko silaba kopurua izatea lortzen du (4 silaba itzulpenak eta 3 jatorrizko bertsoak).

Xabier Leteren «Bird on the wire» abestiaren itzulpena

Berriz ere, «Bird on the Wire» kantaren itzulpenen alderaketak islatzen du bi testuak berdina direla. Halaber, abestiaren itzulpenari dagokionez, euskarazko itzulpenaren azterketa deskribatzaile-komparatiboak agerian uzten du itzulpen-fenomeno hauek baliatu direla gehien: baliokidetasun-eza (% 34,8), aldaketak eta ezabapenak (% 26,1 bakoitza), eta, azkenik, gehikuntzak (% 13).

■ Gehikuntza ■ Aldaketa ■ Baliokidetasun-eza ■ Ezabapena



**8. grafikoa.** Xabier Leteren «Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)» abestiko itzulpen-kategorien maiztasuna.

Horrela, xede-testu hauek *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoko beste testu musikatu batzuen antzekoak dira; izan ere, azterketa deskribatzaile-komparatiboak agerian uzten du jatorrizko konposizioaren melodia eta, hortaz, erritmoa, zentzuari gailendu zaiola.

«Bird on the Wire» <i>Songs from a room (Cohen, 1969)</i>	«Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)» <i>Abestitzak eta poema kantatuak (Lete, 2006)</i> <i>Xabier Lete, itzultzaile (Egia, 2011)</i>
(7) If I, if I have been unkind	(7) Krudel izan baldin banaiz
(8) I hope that you can just let it go by	(8) Ahaz dezazun nahi nuke oraindik
(9) If I, if I have been untrue	(9) Leial izan ez banintzen
(10) I hope you know it was never to you	(10) Zurekin leial nahi nuen izan.
(17) I saw a beggar leaning on his wooden crutch	(17) Krudel izan baldin banaiz
(18) He said to me, “you must not ask for so much”	(18) Ahaz dezazun nahi nuke oraindik
(19) And a pretty woman leaning in her darkened door	(19) Leial izan ez banintzen
(20) She cried to me, “hey, why not ask for more?”	(20) Zurekin leial nahi nuen izan.

**5. taula.** Xabier Leteren «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» abestiko itzulpen-fenomenoak (I).

5. taulako 7.-10. eta 17.-20. bertsoek osatzen dituzte B atalaren<sup>9</sup> funtzioa betetzen duten lehenengo eta bigarren bertso-multzoak. Jatorrizko bertsoan, atal horietako bakoitzeko bertsoak aldatzen dira, eta fenomeno hori ez dator bat atal mota horien forma arketipikoarekin.<sup>10</sup> Hala ere, Leteren itzulpena jatorrizko konposiziotik urrun dago, errepikapena baitarabil berak, hau da, musika-genero horren baliabide bereizgarri bat. Hori dela eta, Letek, lehenengo B atala osatzen duten lau bertsoak leloaren testu-kargatzat erabiltzea erabaki, eta gainerako ataletan errepikatzen ditu. Horiek dira, hain zuzen, itzultzailearen lizentzia artistikoen<sup>11</sup> adibide.

Bertso horiei esker, «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» (Lete, 2006; Egia, 2011) lanean, beste itzulpen-fenomeno batzuk hauteman ditzakegu. 8. bertsoaren itzulpenean, ikus daiteke «just» aditzondoa kendu, eta «oraindik» aditzondoa gehitu duela. Era berean, Letek birritan aldatu du jatorrizko bertsoa, bariazioen bidez: alde batetik, «I hope that» «nahiko nuke» bihurtuz eta bestetik, «let go by» «ahaztu» itzuliz. Azkenik, 10. bertsoaren itzulpena baliokidetasun-eztzat har daiteke, jatorrizkoaren kontrakoa adierazten baitu: ingelesezko abestian zehazten denaren arabera, inoiz ez zaio desleial izan bertsoa eskainitako pertsonari, eta «Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)» (Lete, 2006; Egia, 2011) bertsoan, berriz, «zurekin leial nahi izan nuen» itzuli da, leial izateko borondatea baina, aldi berean, ezintasuna adieraziz. Beste behin ere, badirudi jatorrizko konposizioaren murrizketa erritmikoez eragina izan dutela itzulpen-erabakietan, bertso guztiek ingelesezko bertsoaren silaba kopuru bera baitute.

«Bird on the Wire» <i>Songs from a room</i> (Cohen, 1969)	«Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)» <i>Abestitzak eta poema kantatuak</i> (Lete, 2006) <i>Xabier Lete, itzultzaile</i> (Egia, 2011)
(11) For like a baby, stillborn	(11) Piztiak, urduri
(12) Like a beast with his horn	(12) Beldurrez, haurrak bezala

**6. taula.** Xabier Leteren «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» abestiaren itzulpen-fenomenoak (II).

Hala ere, «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» (Lete, 2006; Egia, 2011) lanaren 11. eta 12. bertsoen itzulpenak agerian uzten du, hizkuntza-edukiari dagokionez, transferentzia interbertsalak egin direla jatorrizkoarekin alderatuz. Baliabide hori behin eta berriz erabili ohi da musika-itzulpenetan, argitalpen inprimatuaren bidez zabaldutakoetan ez bezala. Gainera, Leteren itzulpeneko 11. bertsoan (zeina jatorrizkoaren 12. bertsoarekin bat baitator) murrizketa partzial bat ikusten da «with his horn» ezabatzean. Era berean, «urduri» hitza gehitu da. Bestalde, 12. bertsoan (zeina ingelesezko 11. bertsoarekin bat baitator), izena numerotuz aldatu da,

9. B atala: abestiaren leloa.

10. Lathamek (2008: 1259) honela definitzen du *B atala edo leloa*: «Poesian sortutako terminoa, testuko esaldi errepikakor bati dagokiona eta musikan hainbat eratan aplikatu daitekeena: kantan errepikatzen den testua biltzen duen atal bati egiten dio erreferentzia, eta, normalki haren musika errepikatzen da».

11. *Baliokidetasun-eza* kategorian biltzen den itzulpen-teknika.

«baby» hitza «haurrak» itzulita. Horrez gain, «stillborn»en itzulpena ez da ageri xede-testuan, eta, horren orde, haurrak «beldurrez» daudela deskribatzen da, zeina berriz ere lizentzia artistikotzat har bailiteke.

Itzulitako bertsoen erritmoa jatorrizko bertsoaren erritmoarekin bat ez badator ere, silabaz-baketan ikusten diren aldaketa txikiak adierazten dute, beste behin, 11. eta 12. bertsoetan ikusten diren itzulpen-fenomenoek jatorrizko konposizioaren erritmoa lortzeko nahiari erantzuten diotela.

## Ondorioak

Lehenik eta behin, Espainiako herri-kulturak Leonard Cohenen musika-ekoizpenari egin dion harrera itzulpengintzak markatu du hasiera-hasieratik, eta Kanadako poeta eta musikariaren lana jasotzeko bide iraunkorrenetako bat izan da. Itzulpenik gabe, poetak ez zuen ahots propiorik lortuko Lorcaren obran, eta ahots hori bestelakoa izango zatekeen gitarra flamenkorik gabe. Cohenen lana Espainiako musika-kulturaren integrazioa ez zatekeen posible izango katalanezko, espainierazko, euskarazko eta galizierazko bertsoengatik ez balitz, eta gauza bera esan liteke poetaren eta Espainiako kulturaren arteko uztarketa bereziaz ere. Espainiako kultura Cohenen alfa eta omega izan da. Haren omenezko kontzertu zein diskoek, haren obran oinarritutako bertsoak sortu zituzten musikarien ekarpenekin batera, kantari kanadarrari gorazarre egiteko balio izan zuten. 2011n Letretako Asturiasko Printzea saria jaso izanak ekarri zuen esker ona beste froga bat izan zen Cohenen ahotsa eta gitarra etxera aspaldi iritsi zirela adierazteko.

Gainera, TRALIMA/ITZULIK ikerketa-taldeak garatutako metodologian oinarrituta lan egitea tresna erabakigarria izan da Leonard Cohenen lan itzuliek Espainiako herri-kulturaren duten presentzia deskribatu ahal izateko. Halaber, *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogoa osatu eta aztertu ondoren, zera ondorioztatu ahal izan da: argitalpen inprimatua da hedabide ohikoena, eta gaztelania, berriz, usadio handieneko xede-hizkuntza.

Gure kasuan, Leonard Cohenen musika-lanaren euskarazko itzulpenei dagokienez, *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* katalogotik hainbat ondorio atera ahal izan dira. Lehenik eta behin, euskara maiztasun txikieneko xede-hizkuntzetako bat da (9 itzulpen), eta galizierazko itzulpenkopurua (7) baino ez du gainditzen. Bestalde, bildutako bederatzi itzulpenak bi hedabideren bidez bakarrik zabaldu dira: argitalpen inprimatu gisa (8) eta testu musikatu gisa (1).

Azkenik, argitalpen inprimatuen bidez hedatutako itzulpenen artean ohikoa ez den usadio bat azaleratu du Xabier Leteren itzulpenen azterketa deskriptibo-konparatiboak. Izan ere, badirudi jatorrizko konposizioen erritmoari eusteko erabakiari erantzuten diola «Suzanne» (Lete, 2006; Egia, 2011) eta «Bird on the wire (Txoriak kaiolan)» (Lete, 2006; Egia, 2011) lanetako silaben bateragarritasun-maila handiak. Itzultzailearen erabaki kontziente horren ondorioz, testu musikatu gisa zabaldutako lanen itzulpen-teknika bereizgarri asko baliatzen dira (aldaketak, ezabapenak eta baliokidetasun-ebak), denak ere ezohikoak argitalpen inprimatuetako itzulpenetan.

## BIBLIOGRAFIA ETA DISKOGRAFIA

- ANONIMO (1980). «The stranger song», *Oh! Euzkadi* 4. <https://andima.armiarma.eus/euzk/euzko515.htm>
- Arana, Aitor (1985). «Adizu, hau ez da agur esateko era», *Hotsizki* 1. [https://hkl.eus/fitxategiak/epilogoa\\_liburuxka.pdf](https://hkl.eus/fitxategiak/epilogoa_liburuxka.pdf)
- ASTURIASKO PRINTZESA FUNDAZIOA (2011). «Leonard Cohen. Premio Príncipe de Asturias de las Letras 2011: Acta del jurado», *Premio Príncipe de Asturias de las Letras 2011*. <https://www.fpa.es/es/premios-princesa-de-asturias/premiados/2011-leonard-cohen.html?texto=acta&especifica=0>
- COHEN, Leonard (1967). *Songs of Leonard Cohen* [CD], New York: Columbia Records.
- (1969). *Songs from a Room* [CD], New York: Columbia Records.
- (1971). *Songs of Love and Hate* [CD], New York: Columbia Records.
- (1973). *Live Songs* [CD], New York: Columbia Records.
- (1974). *New Skin for the Old Ceremony* [CD], New York: Columbia Records.
- (1977). *Death of a Ladies' Man* [CD], New York: Columbia Records.
- (1979). *Recent Songs* [CD], New York: Columbia Records.
- (1984). *Various positions* [CD], New York: Columbia Records.
- (1988). *I'm your Man* [CD], New York: Columbia Records.
- (1992). *The Future* [CD], New York: Columbia Records.
- (2001). *Ten New Songs* [CD], New York: Columbia Records.
- (2004). *Dear Heather* [CD], New York: Columbia Records.
- (2011). «Leonard Cohen. Premio Príncipe de Asturias de las Letras 2011: Discurso», *Fundación Princesa de Asturias*. <https://www.fpa.es/es/premios-princesa-de-asturias/premiados/2011-leonard-cohen.html?texto=discurso&especifica=0>
- (2012). *Old Ideas* [CD], New York: Columbia Records.
- (2014). *Popular Problems* [CD], New York: Columbia Records.
- (2016). *You Want it Darker* [CD], New York: Columbia Records.
- (2019). *Thanks for the Dance* [CD], New York: Columbia Records.
- CONFESIONES DE MARGOT (2005). *Disparen a Cohen* [CD], Zaragoza: Discos en tu ausencia.
- EGIA, Gotzon (2011). «Xabier Lete, itzultzaile», *Senez* 41. <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20110824/egia>

- JIMENEZ, Irati (2011). «Abestien dorrea», *Nabarra* 121. <https://old.uberan.eus/?amuak/category/etb/item/leonard-cohen-ii>
- (2011). «Hallelujah», *Nabarra* 121. <https://old.uberan.eus/?amuak/category/etb/item/leonard-cohen-ii>
- LATHAM, Alison (2008). *Diccionario enciclopédico de la música*, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica de México.
- LETE, Xabier (1968). *Egunetik egunera orduen gurpilean*, Bilbo: Cinsa.
- (2006). *Abestitzak eta poema kantatuak*, Donostia: Elkarlanean.
- MANZANO, Alberto, McCORMICK, Kevin eta MAS, Javier (2007). *Acordes con Leonard Cohen/ According to Leonard Cohen* [CD eta DVD], Bartzelona: DiscMedi.
- MANZANO, Alberto (2010). *Leonard Cohen en España*, Bartzelona: Quarentena Ediciones.
- (2012). *Leonard Cohen: Lorca, el flamenco y el judío errante*, Bartzelona: Alfabia.
- MANZANO, Alberto, MERINO ÁLVAREZ, Raquel eta ROS-ABAURREA, Alejandro (2019). *Charlacolquio con Alberto Manzano. Leonard Cohen en la cultura popular traducida al español: la traducción de canciones y poemas*. <https://ehutb.ehu.eus/video/5d8a073cf82b2bd5128b47dd>
- MARTIN-ETXEBESTE, Jon (2020). «La influencia de la oralidad en las canciones de Xabier Lete», *RILCE: Revista de filología hispánica* 36-4, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea, 1.457-1.476. or.
- MERINO ÁLVAREZ, Raquel (2017). «Traducción y censura: investigaciones sobre la cultura traducida inglés-español (1938-1985)», *Represura: revista de historia contemporánea española en torno a la represión y la censura aplicadas al libro 2*, Madril: Alcaláko Unibertsitatea, 139.-163. or.
- MOLINA, Lucía eta HURTADO, Amparo (2002). «Translation Techniques Revisited: A Dynamic and Functionalist Approach», *Meta* 47-4, Montréal: Les Presses de l'Université de Montréal, 498.-512. or.
- NIDA, Eugene A. (1964). *Toward a Science of Translating with Special Reference to Principles and Procedures Involved in Bible Translating*, Leiden: E.J.Brill.
- ORTIZ PÉREZ DE AYALA, Teresa eta MEDIODÍA MARTÍN, Ruth (ek.) (2020). «Canciones desde la azotea: Leonard Cohen» [dokumentala], *Movistar+*.
- OVIEDOKO UNIBERTSITATEA (2020). *Flamencohen*. <https://www.unioviado.es/leonardcohen/index.php/2020/03/02/flamencohen/>
- PAJARES-INFANTE, Eterio (2010). «De los métodos de evaluación de obras literarias: El método de valoración negativa», *Lengua, traducción, recepción, en honor de Julio César Santoyo*, Leon: Universidad de León, 497.-519. or.

- ROMERO, Constantino (1974). «Leonard Cohen: palabras y silencios», *Vibraciones* 2. <http://www.rockdelux.com/secciones/p/leonard-cohen-palabras-y-silencios.html>
- TÉBAR, Eduardo (2010). «Lorca y Cohen: la conexión granadina», *EFE EME, Diario de actualidad musical*. <https://www.efeme.com/lorca-y-cohen-la-conexion-granadina/>
- TOURY, Gideon (2014). *Los Estudios Descriptivos de Traducción y más allá. Metodología de la investigación en Estudios de Traducción* [itzul. Rosa Rabadán eta Raquel Merino Álvarez], Madril: Cátedra.



### Resumen

La traducción ha jugado un papel vital en la recepción de las canciones de Leonard Cohen en la cultura popular de España. Durante décadas, se ha consolidado como uno de los medios más constantes para la integración de la obra del músico canadiense y ha desempeñado el papel de puente entre culturas dentro del sistema lingüístico-cultural origen y meta. Tomando como punto de partida el corpus *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)*, el presente artículo ofrece una panorámica general de las traducciones al euskera de la producción musical de Cohen. Asimismo, incluye un estudio descriptivo-comparativo de las traducciones «Suzanne» y «Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)» de Xabier Lete, debido a que las técnicas de traducción observadas las convierten en objetos de estudio de especial interés.

### Résumé

La traduction a joué un rôle essentiel dans la réception des chansons de Leonard Cohen dans la culture populaire espagnole. Depuis des décennies, il s'est imposé comme l'un des intermédiaires les plus solides pour l'intégration de l'œuvre du musicien canadien et a servi de pont entre les cultures au sein du système linguistique et culturel d'origine et d'arrivée. En partant du corpus *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)*, cet article propose une vue d'ensemble des traductions en basque des chansons de Cohen. Il comprend également une analyse descriptive et comparative des traductions de *Suzanne* et de *Bird on the Wire (Txoriak kaiolan)* de Xabier Lete, car les techniques de traduction observées en font des objets d'étude d'un intérêt particulier.

### Abstract

Translation has played a key role in the reception of Leonard Cohen's songs in Spanish popular culture. Decade after decade, it has become one of the most significant means of integrating the Canadian musician's work, bridging cultures between the native and target languages and culture systems. Based on the *Leonard Cohen\_ESP (1972-2019)* corpus, this article offers an overview of Cohen's songs that have been translated into Basque. It also includes a descriptive-comparative analysis of Xabier Lete's translations of "Suzanne" and "Bird on the Wire" ("Txoriak kaiolan"), as the translation techniques employed make them subjects of special interest.